

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2012ko OTSAILAREN 9an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2012ko otsailaren 9an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.50 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Karlos Irazu Muñoa
Imanol Aranzabal Lasa
Aritz Usandizaga Larrañaga
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea
Jon Tejeria Otermin

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...


Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala bada:**
 - 2012ko urtarrilaren 12an egindako ohiko bilkura
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Larraul, Ernio, Larraul mendi lasterketarako diru-laguntza eskaera, hala bada.**
- 4. 2012 Ekitaldirako Udal aurrekontu orokorraren espedienteari hasierako onespena ematea, hala bada.**
- 5. M.C.G. andreak eginiko kexaren azterketa, hala bada.**
- 6. 2011 urteko kultur asteko gastuen kitapena, hala bada.**
- 7. Fakturak eta ordainketak.**
- 8. Beste batzuk.**
- 9. Erregu, galderak eta mozioak.**

...//...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- 2012 urteko urtarrilaren 12ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

01/2012 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 24koa, 2011ko 4. hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

02/2012 Alkatetza Ebazpena, urtarrilaren 31koa, Hutsik dagoen idazkari-kontuhartzaile postua betetzeko berarizko oinarriak onartzea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira

HIRUGARREN PUNTUA **LARRAUL, ERNIO, LARRAUL MENDI LASTERKETARAKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA, HALA BADA**

Ikusirik A.A.J. jaunak eginiko eskaera, non 2012 urtean Larraul-Ernio –Larraul mendi lasterketa antolatzeko diru-laguntza eskaera egiten duen.

Ikusirik A.A.J. jaunari eskatu zitzaioela 2011 urtean antolatutako Larraul-Ernio –Larraul mendi lasterketaren kitapena eta 2012 urtean izango zituen gastuen aurrekontu bat.


Ikusirik A.A.J. jaunak aurkeztu dituela eskatutako kitapena eta aurrekontua, baina desglosatu gabe.

Ikusirik Larraulgo Udalari ez zaiola nahikoa A.A.J. jaunak aurkezturiko dokumentazioa, gastuen kitapena eta aurrekontua desglosatuak behar dituelako.

Gaia azterturik, Udalbatzak, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: A.A.J. jaunak eginiko diru-laguntza eskaera onestu, hau da 600 eurotako diru-laguntza emango dio Larraulgo Udalak 2012 urteko Larraul-Ernio –Larraul mendi lasterketa antolatzeko. Betiere, Larraulgo Udalak, diru-laguntza hau gauzatzeko, A.A.J. jaunak, Larraulgo Udaletxean, 2011 urteko gastuen kitapena eta 2012 urteko aurrekontu desglosatuak aurkeztu beharko ditu.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

LAUGARREN PUNTUA

2012 EKITALDIRAKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN ESPEDIENTEARI HASIERAKO ONESPENA EMATEA, HALA BADA

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari-kontuhartzaileak prestatu duen 2012 ekitaldirako udal aurrekontuaren aurreproiektuaren espedientea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak xedatutako moduan eta aurreikusitako eranskinekin. Ondorengo dokumentuekin osaturikoa:

- Larraulgo Udaleko aurrekontua.
- Plantila organikoa eta Lanpostu zerrenda.
- Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak.
- Memoria.
- Txostenak.
- Eranskinak.

Ikusirik Udaleko behin behineko Idazkari Kontuhartzaileak 2012ko urtarrilaren 30ean egindako txostenean dioena.


Gaia eztabaidatu ondoren bertaratuek aho batez ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Larraulgo Udaleko 2012 urteko aurrekontu espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) behin-behingo onartzea 736.650,00 eurotako kantitatean. Horren desglosea kapituluetan honako hau izanik:

GASTUAK

I. Kap. PERTSONAL-GASTUAK	76.450,00
II. Kap. GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	104.000,00
III. Kap. FINANTZA-GASTUAK	2.600,00
IV. Kap. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	69.800,00
VI. Kap. INBERTSIO ERREALAK	420.000,00
VII. Kap. KAPITAL TRASFERENTZIAK	8.000,00
IX. Kap. PASIBO FINANTZARIOAK	55.800,00
GUZTIRA GASTUAK	736.650,00



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

SARRERAK

I. Kap. ZUZENEKO ZERGAK	39.500,00
II. Kap. ZEHARKAKO ZERGAK	7.000,00
III. Kap. TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	40.280,00
IV. Kap. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	219.050,00
V. Kap. ONDARE-SARRERAK	3.100,00
VI. Kap. INBERTSIO ERREALAK INORENGANATZEA	0,00
VII. Kap. KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	365.000,00
IX. Kap. PASIBO FINANTZIEROAK	62.720,00
GUZTIRA SARRERAK	736.650,00

BIGARRENA.- 2012ko aurrekontu espedientea bideratzeko izapidetzek aurrera eramatea.

HIRUGARRENA.- Udal Aurrekontu Orokorren espedientea (Aurrekontua, Plantila Organikoa, Lanpostu zerrenda, Aurrekontu orokorra betearazteko oinarriak, memoria, txostenak eta eranskinak) 15 laneguneko epean jendaurrean jarriko da, interesatuek bidezko iritzitako errekurso eta alegazioak tarteratzeko, horretarako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Inongo erreklamaziorik gabe igarotzen bada epea, behin-betiko onartutzat joko da aipatutako dokumentua, beste akordiorik hartu gabe.

BOSTGARREN PUNTUA

M.C.G. ANDREAK EGINIKO KEXAREN AZTERKETA, HALA BADA


Ikusirik M.C.G. andreak aurkezturiko kexa, non azaltzen duen Hezkide Eskolara etortzen diren taldeak, herrian zehar ibiltzen direla batezere udara partean, gauean inongo ordutegi finkorik gabe eta ateratzen duten zarata handia denez ezinezkoa egiten zaiela lo egitea, arazoa areagotu egiten delarik hurrengo egunean lanera joan behar dutelako.

Ikusirik, Alkate jauna Hezkide Eskolako arduradunarekin egon dela pare bat aldiz, jakinarazteko etortzen diren taldeek herrian zehar, gauetan, ibiltzen direla zarata handia ateraz.

Ikusirik, nahiz eta ohartarazpen hauek egin ondoren Hezkide Eskolako arduradunak ez dutela inolako neurririk hartzen, Larraulgo Herriko giro paketsua mantentzeko.

Ikusirik Larraulgo Udalak ez dituela medio pertsonalik (udaltzainik) ez medio materialik (ordenantzarik) M.C.G. andreak aurkeztutako kexari konponbide bat emateko.

Gaia aztertuturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: M.C.G. andreari jakinaraztea, Larraulgo Udalak ez dituela medio pertsonalik ezta medio materialik berak jarritako kexari konponbide bat emateko.

BIGARRENA: M.C.G. andreari jakinaraztea, Larraulgo Udalak hitzordu bat eskatuko duela Gipuzkoako gotzaindegiarekin, bera bai da Hezkide Eskolako jabea. Aurkezturiko kexari konponbide bat bilatzeko.

SEIGARREN PUNTUA

2011 URTEKO KULTUR ASTEKO GASTUEN KITAPENA

Ikusirik 2011ko azaroak 21tik 27ra Larraulgo Aste Kulturala egin dela bertan hainbat gastu egon direlarik. Ondorengoak izanik:

GASTUAK:

-Bertsolariak (Mendiluze-Maia)	440,00
-Kartelak	140,00
-Egutegia	840,00
-Ostatua	459,00
-Saskia	68,00
-Elkartea	10,80
-Pelota sariak	44,00

Sagardo dastaketa

-Sagardo elkarteak	150,00
-Arraultzak	7,15
-Ogi Txikiak	5,35
-Elkartea	8,00

Mus Txapelketa


-Arkumea	67,60
-Elkartea	46,10

Haur merienda eta eskulanak

-Elkartea	13,60
-Janaria	54,78
-Eskulanak	82,40

Talo jana

-Urdaia-Gazta	117,40
-Txorixoa	90,00
-Artirina	32,00



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

-Gaztainak	105,00
-Txokolatea-freskagarriak	14,20
-Ogia	13,50
-Elkartea	144,43

GUZTIRA: 2.953,31€

SARRERAK:

-Udalaren ekarpena	2.000,00
-Saski boletoak	226,00
-Mus txapelketa	120,00
-Egutegien salmenta	60,00

GUZTIRA: 2.406,00€

BALANTZEA: -547,31€

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengoa


ERABAKITZEN DU:

BAKARRA.- 2011ko aste kulturaleko gastuen kitapena onestea.

ZAZPIGARREN PUNTUA FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

ULAHI	803,70
FONGUI	102,35
BERRI LANTEGIA	52,29
BERRI LANTEGIA	54,79
BERRI LANTEGIA	49,39
FERRETERIA BARBE	74,45
AITZOL	56,84
BERRI LANTEGIA	39,65
BERRI LANTEGIA	77,17
CRISTALERIA ALBISU	31,71
MANPEL	470,16
SETALDE	262,81
KIROLZER	136,70



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

DISTRIBUCIONES LOPETEGUI	190,88
MOVISTAR	91,12
MOVISTAR	89,82
MOVISTAR	19,46
MOVISTAR	20,47
IBERDROLA	189,39
IBERDROLA	11,16
IBERDROLA	17,06
IBERDROLA	10,67

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **2.852,04** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

8.1 IX. AIZTONDO KLASIKOA "PATXI ALKORTA MEMORIALA"-ri 2012 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Klasikako Batzordeak, IX Aiztondo Klasikoaren "Patxi Alkorta memorialaren" aurrekontua bidali duela, guztira 25.000 eurotako dena, datorren martxoaren 11an ospatuko dena. Larraulgo Udalarari 799,98 eurotako ekarpena egin dezan eskaera egiten duelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa


ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Aiztondo Klasikako Batzordeak aurkeztu duen aurrekontua onartzea eta 799,98 eurotako ekarpena burutzea.

BIGARRENA.- 2012 urteko aurrekontuan partida nahikoa aurreikustea.

8.2. EUSKADIKO UDALEN ELKARTEARI (EUDEL) 2012 URTEKO EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik 2011 urtean, Larraulgo Udalak onartu zuela Euskadiko Udalen Elkarteari atxikitzea, eskubide osoko kide bezala.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Larraulgo Udalak Euskadiko Udalen Elkarteko eskubide osoko kide bezala 300,51 eurotako ekarpena burutu behar diola urtero EUDEL eri.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udalak Euskadiko Udalen Elkarteko eskubide osoko kide bezala 300,51 eurotako ekarpena burutzea EUDEL eri, dagokion gastuari onespena emanaz.

BIGARRENA: 2012 urteko aurrekontuetan aipaturiko gastuari aurre egiteko kreditu nahikoa aurreikustea.

8.3. LARRAULGO BEOBIDE ERDIKOA BASERRIAREN TEILATUAN TELEFONIA MUGIKORREKO ANTENA BAT JARTZEKO BAIMENA ETA JARDUERA BAIMENA ESKAERA.M.A.

Ikusirik, Telefonica moviles S.A.k eginiko eskaera, non Larraulgo Beobide Erdikoa baserriaren teilatuan telefonia mugikorreko antena bat jartzeko obra baimena eta jarduera baimena eskaera egin zuela.


Ikusirik, 2012ko urtarrilaren 12an eginiko Udalbatzarrean erabaki zela Telefonica moviles S.A.-ri jakinaraztea eginiko obra baimena eskaera legeztagarria izan zitekeela baldin eta eginiko obra guztiaren aurrekontu bat aurkezten bazuen.

Ikusirik, 2012ko urtarrilaren 12an egindako Udalbatzarrean erabaki zela Telefonica moviles S.a.ri jakinaraztea eskaturiko jarduera baimena martxoak 9ko 165/1999 Dekretuaren bidez tramitatuko zela, zeina, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra, jasotzen den jarduerarako lizentzia eskuratzetik salbuetsitako jardueren zerrenda finkatzen duen.

Ikusirik, Telefonica moviles S.A.-ak Larraulgo Beobide Erdikoa baserriaren teilatuan telefonia mugikorreko antena bat jartzeko obra baimena legeztatzeko eskaturiko aurrekontua aurkeztu duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: Telefonica moviles S.A.-ak Larraulgo Beobide Erdikoa baserriaren teilatuan telefonia mugikorreko antena bat jartzeko aurkezturiko jarduera baimenari hasiera ematea.

BIGARRENA: Udal Teknikariari eskatzea txosten bat egin dezala, non adieraziko den eskatzen den jarduera baimenak, gaur egun Udalerrian indarrengoan dagoen hirigintz ordenamentua urratzen duen edo ez zehaztea.

HIRUGARRENA: Teknikariaren txostena aldekoa balitz, aipaturiko dekretuan zehazten den modura tramitatu dadila espedientea. Ondorioz, jarduera kokatu behar den inguruko bizilagunei jakinaraziko zaie hamar eguneko epea dutela jarduera honen kontra erreklamazioak aurkezteko; aipaturiko epea amaiturik, eta erreklamazioak azterturik, erreklamaziorik balego, jarri daitezela aparteko neurriak jardueraren funtzionamendu egokirako eta Udal Teknikariak ikuskaritza egin dezala ziurtatzeko aipaturiko neurriak jarri direla.

8.4. DINA 7 KULTUR ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik DINA 7 Elkarteak eginiko 2012 urterako 3.500 eurotako diru-laguntza eskaera euren jardua aurrera eramateko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- DINA 7 Elkarteari 1.000 eurotako diru-laguntza ematea, euren jardua aurrera eramateko.

BIGARRENA: Larraulgo Museo Etnografikoaren kudeaketa DINA 7 Elkarteari esleitzea, horretarako beharrezkoa den hitzarmena onesten delarik 2012 urterako. Alkate-Lehendakaria ahalmenu aipaturiko hitzarmena sinatzeko.


HIRUGARRENA: Erabaki hauen berri DINA 7 Elkarteari ematea.

8.5. TOLOSALDEKO EUSKAL KOMUNIKABIDEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Euskal komunikabideak eginiko diru-laguntza eskaerak.

Ikusirik 2012 urterako Tolosaldeko Euskal komunikabideen artean banatzeko Udal aurrekontuetan 1500 eurotako partida aurrikusi dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Manuel Larramendi Kultur bazkunari 1000,00 eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: Tolosaldeko Hitza-ri 200,00 eurotako diru-laguntza ematea.

HIRUGARRENA: 28 Kanalari 150,00 eurotako diru-laguntza ematea.

LAUGARRENA: TXOLARRE irratiari 150,00 eurotako diru-laguntza ematea.

8.6. 2012 EKITALDIRAKO TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO UDAL ZERGAREN ERROLDA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

Alkate jaunak 2012 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko Udal Zergaren Erroldaren berri ematen du, zeinaren zenbateko osoa 16.889,41 eurotako den.

Bertaratuek, aipatu errolda fiskala aztertutik, ahobatez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- 2012 ekitaldirako Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari dagokion Udal errolda onartzea eta 11/1989 Legeak, Herri Ogasunei buruzkoak 14.1 artikuluan xedaturikoari jarraituz hilabeteko epean espedientea jendeaurrean ipini, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, edonork aztertu eta egoki dituen iradokizunak burutu ditzan.


BIGARRENA.- Aipaturiko zerga ordaintzeko borondatezko epea, onaturiko 2012 ekitaldirako Zerga Egutegiari jarraituz, 2012ko apirilaren 2etik ekainaren 1era bitartekoa izatea.

8.7. LARRAULEN OSPATU BEHAR DEN ESKOLA TXIKITAKO FESTARAKO DIRU-LAGUNTZAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2012 urtean, Larraulen ospatu behar dela Eskola Txikitako festa.

Ikusirik, Larraulgo Udalak asmoa duela Larraulen ospatu behar den Eskola Txikitako festa antolatzeko diru-laguntza ematea.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Eskola Txikitako batzordeari 1.500,00 eurotako diru-laguntza ematea, 2012 urtean Larraulen Eskola txikitako festa antolatzeko.

BIGARRENA: Larraulgo Eskola txikitako batzordeari beste 1.500,00 eurotako diru-laguntza ematea, baldin eta festaren kitapenean galerak badituzte, hau da, 1.500,00 euro ordainduko zaizkie, 1.500,00 euro baino gutxiagoko irabaziak izaten badituzte (tope 1.500 euroko irabazi arte).

HIRUGARRENA: Larraulgo Eskola txikitako batzordeari jakinaraztea, aipaturiko festa egin aurretik, Larraulgo Udaletxean aurkeztu beharko duela, aurreikuspen bat, non azalduko den, festa zenbateko irabazi edo galerak izango dituen.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Karlos Irazu Zinegotziak hitza hartzen du, batzarkideei jakinarazteko, bi gai potolo dituztela, hau da, Larraulgo Plan Orokorra eta eraikin balioanitzaren exekuzioa. Gaiak oso garrantzitsuak direla eta oraindik finkatu gabe dituztela. Batzarkideei proposatzen dielarik, bilera batean tratatu beharko dituztela sakonki, eurekin zer egin behar duten zehaztuaz.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.10 orduak direnean Alkate orde jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA